



Janire Pérez
Aranzadi Ikastola (Bergara)
3. Saria DBH (Yola Berrocal)
Argazkiak: Sara Santos

“Kosmodiseak talde-lana errazten du era garrantzitsuan”

Janire Pérezek, Kosmodisea 2007-2008 edizioan parte hartu duten eta DBH kategorian hirugarren saria lortu duten Bergarako Aranzadi Ikastolako 36 ikasleren arduradunak, orokorrean, programa honetan izan duten parte-hartzearen esperientzia *“polita eta dibertigarria”* izan dela dio, *“ikasleak oso gustura ibili”* baitira.



Janirek dio ikasleak oso motibatuak egon direla *“irabaziz gero lortuko luketen saria”* zela eta, baina beste hainbat jardueretan parte-hartzeak ere poztu dituela, hala nola, musika eta argazkiak Interneten bilatzerakoan, etab. Hala ere, Aranzadi Ikastolako irakasleak gaineratu duenez, ikasleak *“oso pozik daude lortutako emaitzarekin eta jasotako sariarekin”*.

Pérezek dio, bere ustetan, ikasleek Kosmodisean parte hartzean jaso duten balio garrantzitsuena *“taldean lan egiten ikastea”* dela, nahiz eta garrantzitsua ere baden, jarduera honek *“hainbat programa erabiltzeko”* aukera eskaintzen duela.

Aranzadi Ikastolak jada ziurtatu du Kosmodiseako datorren edizioan parte hartuko duela eta, proposamen modura, agian hobeto litzatekeela taldeek garatu beharreko gaiak eurek aukeratzea.